

LURRA EMOTEA

Sagasta'n jausi zan,
 ta a datorkit gogora,
 aren miñak bizien.
 Ez dot ezer oroi, aren itzala ezik;
 il-kutxaren barnean,
 —gau-itx antzeko nunbait—
 ixil zetzan, illik.

Aren betertz laru,
 aren odol-batuna
 begi itxi pean,
 soiñeko baltzaren isla zimur-azia...
 Dantzan zegon itzala
 aren inguru oso,
 ta egazka argia.

Lau gaztek eroien
 bidez bide, txango-sor,
 ibil neurrituan.
 Gudán, su-lubanean jausi zan gaztea,
 aberri alde emonik
 odola ta kemena,
 bizi-gar lorea.

Il-kutxaren ertza
 aio-gaitz eban lertzen
 ¡zuaren ortzak.
 Oiñen otsa iltegiruntz joian leunki urtuz,
 biotz-zauskada larri
 ta zentzun zalantzazko
 artean utsalduz.

Ixildu zan batez
 oin-otsen iskanbilla...,
 atea irikirik.

Lau kanako obian jarri eben gorpua,
 aberriaren alde
 jokatuz il zanaren
 gorpuzkin xeetua.

EZ ITXARTU!

Txindor atsegingarri, txindor neurea!
 Egun-urratzez zara zu itxarrean.

Ibilli zaitetz ego-arin basora
 eta esan: «Egizu oiú otsean».

Jo itxasora ta esan eztarri zoli:
 «Ots, itxaso, olatu irri leunean».

Jo arin kalera ta oiú angoai:
 «Eсна zaitetze! Orra, eguna atean».

Astin egoak beingoz, ekin mendira,
 ta artzaiñari: «Alboka jar abesean!»

Aizearen ego-mintz igo oianera,
 ta esaiozu: «Oian, sar dardarrean!»

Zabiltz, bai, artotzara, atsedén barik,
 ta ots ari be: «Zirkin aize leunean».

Lo daukazu oillarra; jo arengana,
 ta esan: «Itxar adi! Ekin otsean!»

Or torreko ezkillá, oraindik muru;
 esaiozu: «Noiz, ezkil, zaitut otsean?»

Ikus gau-ontz nagia, zulora barik;
 esan: «I argi-zale? Ago ixillean».